

47 - ALDE ZAHARRA

1. HELBURUAK:

- 1 Arrasateko erdigune historikoa den monumentu multzoa finkatzea eta zaintzea.
- 2 Historian zehar izan den antzera, bere itxura galdu gabe, herriko bihotz izaten jarraitu ahal izateko zaharberitze lanak ahalbideratzea.
- 3 Gune osoan oinezkoen nagusitasuna finkatzea.
- 4 Karkabak berreskuratzeko urratsak ematen jarraitzea.
- 5 Helburu jakin gabeko hornikuntza eraikin berriak jasotzeko aukera ematea.

2. EGITURAZKO ANTOLAMENDUA:

LURZORUAREN SAILKAPENA:	Hirilurra
ESPARRUAREN AZALERA:	55.827 m ²
ERABILERA OROKORRA:	Etxebizitza
SISTEMA OROKOR PUBLIKOAK:	Esparruaren barruan gelditzen diren: <ul style="list-style-type: none"> - Udaletxea - Kulturate
ERAIKIGARRITASUN FISIKOA:	Bereganatzen den plan bereziak aitortu duena
HIRIGINTZA-ERAIKIGARRITASUNA:	Bereganatzen den plan bereziak aitortu duena
ERAIKIGARRITASUN HAZTATUA:	Bereganatzen den plan bereziak aitortu duena
BABESTU BEHARREKO ONDAREA:	Hirigune historikoa monumentu multzoa, bere berezitasun eta zehaztapen guztiekin, Udaletxea eta San Juan Bataiatzailea parrokia barne. Horretaz gain, Okendo etxea, San Frantzisko elizak eta Kulturatek osatzen duten multzoa, Salinas jauregia (Adan eta Yarzaren etxea), Maala 17ko etxea, eta Garibai etxea.
ETXEBIZITZA KOPURUA:	Berriak: plan bereziak ahalbideratzen dituen gutxi batzuk
EGITARAUA:	Egikaritzen

3. BEREKANATUTAKO ANTOLAMENDUA:

Arrasateko herrigune historikoa eta errabak erabat birgaitzeko plan bereziaren testu bateratua, Udal Plenoak 2013ko uztailearen 23an behin betikoz onartutakoa, bereganatzen du HAPO honek.

4. ANTOLAMENDU XEHATUA:

HIRILUR MOTA:	Finkatugabea
ANTOLAMENDU ARAUBIDEA:	Bereganatua (A4)
JARDUKETAREN EREMUA:	Esparrua bera
JARDUKETA ERA:	Lankidetzeta-sistema (K5)
ZUZKIDURAK (TOKIKO SISTEMAK ETA URBANIZAZIO IRIZPIDEAK):	
- Ez da bereziki ezer eskatzen.	
ERABILERA ARAUBIDEA:	
- E. ohikoena: Alde zaharreko etxebizitza (69 artikulua)	
- Gainontzean, onartutako plan bereziaren arabera	
ERAIKIGARRITASUN XEHATUA:	Onartutako plan bereziak zehaztu du
ERAIKUNTZAREN ARAUBIDEA:	Onartutako plan bereziaren arabera
ESKUHARTZE GUNEA:	BAI

BESTE BATZUK:

1. Gaur egungo eraikinak antolamenduarekin bat datozen ala ez bereganatutako planak zehaztu du.
2. Ordezkatzerakoan egokitzapena eskatzen zaien eraikinen profila plan bereziak jasotakoa izango da.
3. Karkabak ikutzen dituzten eskuharrenak haiek berreskuratzera zuzenduko dira, plan berezian jasotako prozedura jarraituz.
4. Eraikigarritasun haztatua kalkulatzeko ez da erabiliko 36 artikuluan jasotako laukia. Aldiz, plan bereziak landutako hirigintza zamen zehaztapen ekonomikoa jarraituko da.

5. KONTUAN HARTZEKOAK:

- 1 1964ko urtarrilaren 17ko Aginduz (Hezkuntza ministeritza), Okendo etxeak, Artazubiaga etxeak, Udaletxeak, San Frantzisko komentua eta sarrerako arkuak monumentu izendapena jaso zuten.
- 2 Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak, 1997ko otsailaren 11ko Dekretuz, Arrasateko hirigune historikoa monumentu multzo izendapenez kultura ondasun gisa sailkatu zuen, bertan finkatzen ziren mugekin.
- 3 Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailburuak, 1998ko otsailaren 12ko Aginduz, Arrasateko hirigune historikoa esparru arkeologikoa euskal kultura ondarearen zerrenda orokorrean monumentu multzo izendapenez kultura ondare gisa izendatu zuen, bertan finkatzen ziren beste muga batzuekin.
- 4 San Frantzisko komentua eta bere inguru hurbila balizko arkeologia gune bezala izendatuta dago.